

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

Gaur gauerdian hasiko da kanpaina

Euskal alderdiek Hegoaldeko lau hiriburuetan egin dituzte deialdiak

Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina ofiziala gaur gaueko hamabietan hasiko da Hego Euskal Herrian. Txartelak jarri, INEMera edo kartzelara hurbildu, suziriak bota, dantza egin, hauteskunde autobusa hartu... Gauerditik aitzina dena da baliokoa. Hasi da boto ehiza.

IRUÑEA

Hego Euskal Herriko alderdiek dena prest dute 15 egun iraungo duen hauteskunde kanpaina ofizialerako. Ofizialtasuna azpimarratu beharra da, kanpaina hasi, aspaldi hasi zelako. Kanpaina ofiziala laburtzean, usadioz aurrekanpaina zenak aurrizkia galdu du. Hala ere, botoa zuzenean eskatzeko gaueko hamabiak arte itxaron beharko dute alderdiek.

Euzko Alderdi Jeltzaleak Gasteiz Erdialde batzokian egingo du ekitaldi nagusia. Bertan, Arabako hautagaiekin batera, Jose Antonio Ardanza lehendakaria izango da eta gauerdian hauteskunde autobusa jarriko dute abian. Xabier Arzalluz EBBko lehendakaria, berriz, Bilboko Sabin-etxean agertuko da Iñaki Anasagastekin. Nafarroan Sanfermin giroa aurreratu nahi izan dute jeltzaleek eta gaueko hamabietan suziria botako dute Zapateria kaleko egoitzatik.

Sozialistek Bilboko Doña Casilda parkea aukeratu dute kanpainari ekiteko. Bertan Jose Maria Benegas, Nicolas Redondo eta Ramon Rubial hautagaiak egingo dira. Gasteizen, Amarika plazako Ezkertokian elkartuko dira txartelak jartzeko. Nafarroari dagokionez, Carlos Soltxaga Espainiako Ekonomia eta Haziendako ministroa agertuko da Sarasate pasalekuko egoitzan.

Nafarroako Herri Batasuna Iruñeko kartzelaraino hurbilduko da kanpaina hasteko. Alderdiko iturriek jakinarazi dutenez, elkartasuna adierazi nahi diete preso dauden Xabier Aiestaran eta Esther Lakasta hautagaiei. Bilbon kanpaina giroa lau orduz aurreratuko du HBk, arratsaldeko zortzietan mitina emango baitute Jon Idigoras, Jone Goirizelaia eta Kepa Landak. La Esperanza frontoian izango da hori.

Eusko Alkartasuna-Euskal Ezkerra koalizioak Donostiako Maria Cristina hotelean egingo du kanpaina hasierako ekitaldi nagusiak. Hautagaiek eta alderdietako buruek bertan afalduko dute eta hamabi kanpaiekin ba-



Kartelak eta bestelako propagandaz josiak ikusiko ditugu laster kaleak.

tera lehen txartelak agertaraziko dituzte. Bilbon Bulebarrean bilduko dira eta Iruñean, berriz, Gaztelu plazako Alkartetxean.

AZNAR DONOSTIAN GAUEAN Gipuzkoako Partidu Popularrak Jose Maria Aznarren laguntza izango du Donostian txartelak jartzeko, alderdiko lehendakariari indarrik gelditzen bazaio, egun guztian hara eta hona ibiliko dute eta. Eguerdian Gasteizen izango da, kazetariekin bazkaltzen, eta on-

dorean prentsaurrekoa emango du. Gasteiztik Bilbora abiatuko da, arratsaldeko zortzietan mitina baitauka Coliseo Albian antzokian. Iruñean, UPN-PPko hautagaiak Tutera eta Lizarra kaleen inguruan elkartuko dira gaueko hamabiak jo baino lehen, txartelak jartzeari ekiteko.

Unidad Alavesak egitasmo osoa du Zaramagako kiroldegian: afaria, dantzaldia eta mitina, gaueko hamarretatik aitzina. Hamabietan, lehen txartelak jarriko dituzte han bertan.

Gonzalez: «EAJrekin badago gobernatzerik»

DONOSTIA

«EAJrekin Euskadin gobernatzerik badagoela egiaztatu dugu» adierazi du Felipe Gonzalez Espainiako presidentek 'El Diario Vasco' egunkariak atzo argitaratu zuen elkarrizketan. «Normaltasuna eta lasaitasuna» ekarri duela EAJ eta PSOEek izan duten gobernu esperientzia uste du Gonzalezek, eta horrek Espainiako Parlamentuan ere askotan bat egitea izan duela ondorio. «Etorkizunean ere horrela izatea espero dut» dio.

Baina gauza bat argitu nahi izan du jarraian Felipe Gonzalezek. «Gobernu zentrolean gobernatzeak, hau da, Gobernuan erantzukizunak hartzeak, lurralde

osoaren ikuspegia, Espainia osoaren ikuspegia edukitzea esan nahi du» adierazi du aipatu elkarrizketan.

Brusselan EAEk berezko ordezkari izateko EAJk bere hauteskunde programan egiten duen eskaerari buruz, «ezinezkoa iruditzen zait erregioek erabaki zuzena izatea Europako etorkizunean» adierazi du Gonzalezek. Hori ez dela Europako errealitatearen barruan sartzen azaldu du.

Bestalde, Espainiako presidentek ez du uste bere gobernu Jose Amedo GALEko kidearekin jarrera desberdina izaten ari denik. «Kartzela zigorra betetzen ari den beste pertsona batekiko jarrera bera dago Amedorekin» dio.

Izquierda Unidak langabeziaren arazoa salatzeke aprobetxatu nahi izan du kanpaina ofizialaren hasiera. Hori dela eta, bere hautagaiak INEMen bulegoetara hurbilduko dira gauerdian. Bilbon, esate baterako, Andoni Perez Aiala zerrendaburua eta gaitzetzeko hautagaia Gran Viako INEMen bilduko dira.

EUREK ESANAK

Herri honen normalizazio politikoa EA-EUE koalizioaren indartzetik etorriko da.

Inazio Oliveri
(EA-EUE)

Arrazoi objektiboek bihotzeko arrazoiaren aurretik egon behar dute hitzarmenak egiterakoan.

Jose Antonio Ardanza
(EAJ)

Jose Maria Aznarrek Espainia nafartu beharko luke.

Miguel Sanz
(UPN)

Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin harreman ez gehiago izategatik horien falta nabaritzen dut, eta gainera badakit zerbait dagoela harremanak zailago egingo dituen, eta ez diot berari errua leporatzen.

Felipe Gonzalez
PSOE

HB: «Bilboko Udalak adierazpen askatasuna galera izan da»

I.U. / BILBO

Josu Ortuondo alkateak adierazpen askatasuna galarazteko bideak jarri dituela salatu du Herri Batasunak. Koldo Celestino zinegotziak nabarmendu zuen garbiketari buruz alkatetzak eman zuen ebazpenak kartelei eta pankartei dagokiela soilik eta ez hiriburuan dauden bestelako lohikeriei.

Zinegotzi abertzaleak gogor salatu zuen Udaltzaingoi Polizia Nazionalarekin batera aritzeko agindua eman izana. Hiritarren segurtasun zerbitzuak udal Poliziari igorritako agiri baten berri eman zuen Celestinok. Margoak edota kartelak jartzen dituztenei nortasun agiria eskatzea eta arazoren bat izanez gero Polizia Nazionalak honetarako daukan zerbitzuari dei egitea agintzen zaie idatziz Udaltzainei.

Celestinoren iritziz Udala HB kriminalizatzen saiatzen da, hauteskunde kanpainan jarritako kartelak legez kanpokoak direla esanez. Celestinok Udaltzaingoa modu partidistan erabiltzea salatu zuen. Bilboko udaletzeko langile batzordeak ere Udalaren neurri hauek gaitzetsi egin zituen.

Gobernu Zibilak Begoña Garmendia salatu du

DONOSTIA

Gipuzkoako gobernadore zibilak salaketa kriminala aurkeztu du Begoña Garmendia Gipuzkoako HBko zerrendaburuaren aurka. Jose Maria Gurrutxagaren ustez maiatzaren 17an Donostian izan zen Herri Batasunaren manifestaldi baten amaieran Garmendiak esandako hitzak kalumnia delitua izan daitezke.

Gobernadore zibilak lehenengo manifestaldi baterako HBren deia debekatu ondoren, bigarren deitutakoaren amaieran Garmendiak esandako hitzek sortu dute Gurrutxagaren haserre. «Orduan Gurrutxagak adierazi zuen ez zuela ezagutzen gure deia, baina ziur alde aurretik ezagutzen zuena nortzuek asaltatu zuten gure egoitza, berorrek bidalitako mezulariak izan baitziren» esan bide zuen Garmendiak egun hartan.